

DANIEL LANDART. ...*Hogoi urte*. Goiztiri. Baiona, 1968.

Daniel Landart donostiriar gaztearen lehen liburua. P. Narbaitz jaun kalonjearen aintzin solasarekin.

Gutxi izan dira Euskal Herrian hain gazterik idazle bezala eza-gutu direnak. «Daniel Arberu» bere izenordea aspaldidanik ezaguna da euskal letretan. Eta, hamazortzi urte besterik ez zituan 1964-an «Eskualzaleen Biltzarrak» eratutako teatru saria jaso zuenean, *Herro eta nigar*-ekin. Honez gainera beste hiru teatruen egilea da, ta gainera Garcia Lorca-ren *Bodas de sangre* euskeratua du. Gero, batek bai al daki zenbat artikulua idatzi dituen euskal aldizkarietan, batez ere *Herria*-n.

Poesi eta gogoetadun liburua, orotariko gaiak biltzen dituelarik. Eskuratu orduko abiatu gera liburuaren orrien barna ezti xurkatzaille, eta arkitu ditugu bai ezti, bai gogoeta samin. Ezin zitekean bestera izan, gazte hain kezkatia-aren pentsamenetik irtena. Maiz dakarzki gaurko prolematika gogoetak eta hoietan ezin aurkitu gauza ez-titsurik.

Bere poesia gintza oraindik beharduen goitasunera heltzeke dago. Poesi asko ditu makal xamarak, baina bai bikain askoak ere. Esate baterako, hor ditu: «Gazteri berria», «Arratseko otoitza», «Eskualdunak portuges...», «Bihar» eta abar, tarteka oso goi-maila agertzen duelarik.

Gogoetak ere oso barnetiarrak azaltzen zaizkigu, hala dira «Langile gazte baten gogoetak», «Eguberri gaua» eta beste zenbait.

Gazte bat guri mintzo, eta «Pindar horiek, agian piztuko daukute anhitzen bihotzetan aspaldian Eskual-Herriak galdegiten zuen sua!», dio Narbaitz-ek bere aintzin solasean. Hala bedi. Eta gut oraindik gehiago espero dugu gazte gihartsu bezin burutsu den honen emaitza onurakorretatik.

Baita ere, oso pozik ikusiko genituzke bere teatruok argitaratuak.

J. SAN MARTIN.

